

ERRETERIA / Aldizkariak maileguan uzteko zerbitzua bihar hasiko da

Udal Liburutegiko arduradunek hainbat aldizkariren hautaketa egin dute, maileguan jartzeko

Erredakzioa

Erreterriako Udal Liburutegitik jakinarazi dutenez, bihartik martxan jarriko dute aldizkariak maileguan uzteko zerbitzua. Aldizkari-tituluen eta maileguan eramateko baldintzen berri jakin nahi duten herritarrek liburutegian bertan galde dezakete. Euskadiko Irakurketa Sareko Katalogoan ere kontsulta egin daiteke:

www.katalogoak.euskadi.net/katalogobateratua webgunean (Erreterriako katalogoa). Horrez gain, maileguan eramateko argitalpenen zerrenda liburutegiko hainbat tokitan egongo da ikusgai.

Udal Liburutegiko arduradunek askotariko gaiez osaturiko tituluen hautaketa egin dute, argitalpenen kudeaketa automatizatzen duten heinean gehituz joango dena. Oro har, aldizkariak maileguan eraman ahal izateko ondoko baldintzak jarri dituzte:

Liburutegiko bazkidea izatea eta liburutegiak ezarritako zigorrak ez izatea. Baldintza hori betez gero aldizkari bat eraman dezake interesatuak. Maileguaren epea zazpi egunekoa izango da, eta erabiltzaileak sekula ez du eramango aldizkariaren azken alea, liburutegiko erakustokian egon behar duelako.

Ale bakoitzetik kopuru jakin bat eraman ahal izango du erabiltzaileak maileguan, eta frogatu beharko du maileguan hartu baino lehen aldizkaria ondo dagoela. Entregatzerako orduan, liburutegiko langileek gauza bera egingo dute. Aldizkaria hondatuta egongo balitz, berria ekarri beharko du maileguan eramateko araudi orokorrak ezartzen duenaren arabera.